

Heriotzak %0,4 ugaritu ziren 2015eko laugarren hiruhilekoan Euskal AEn

2015ean ehun urtetik gorako 276 pertsona hil ziren, 227 emakume eta 49 gizon

2015eko laugarren hiruhilekoan, 5.038 heriotza Euskal AEn; aurreko urteko aldi berean baino %0,4 gehiago, Eustaten datuen arabera. Araban 658 lagun hil ziren, Bizkaian 2.745, Gipuzkoan 1.635.

Behin-behineko datuen arabera, 2015ean 20.882 lagun hil ziren, 10.474 emakume, 10.408 gizon. 2014.aren aldean heriotzak %6,7 gehitu.

Lehengo urteko heriotzen artean, 51 urtebetetik beheragoko haurrenak izan ziren: 25 mutiko eta 26 neskato. Ehun urtetik gora hildako 276 pertsonen artean, 227 emakume, 49 gizon. Bizitza nabarmen luzatu da, bereziki emakumeen artean. 2015ean 2014an baino 31 heriotza gehiago izan ziren ehunurtedunenak; 18 gizon, 13 emakume.

Heriotza eragile nagusia 2015ean, tumoreak

2015eko heriotzen %30 (6.256) tumoreek eraginda. Jarraian zirkulazio sistemaren gaixotasunak, %26,6 (5.549 hildako); hirugarren, urrunago, arnas aparatuko gaixotasunek %9,8 eragin zituzten (2.056).

Gizonen artean, tumoreak hilgarriago gertatu ziren zirkulazio-aparatuko gaixotasunak baino, ehuneko ia 12 puntuz; emakume artean, heriotza-kausa nagusia gaixotasun kardiobaskularrak eta tumoreak bigarren, ehuneko 3,6 puntuko aldea.

Hazkunde begetatiboa Araban; beherapena Bizkaian eta Gipuzkoan


2015eko behin-behineko datuekin, Euskal AEn beherapen begetatiboa; 2.131 heriotza gehiago jaiotzak baino. Bizkaian -2.163 pertsona; Gipuzkoan -456; Araban +488.

1. taula: Heriotzak Euskal AEn, sexuaren eta heriotza-kausaren arabera Hiruhilekoen alderaketa

	2015/IV		Aurreko hiruhilekoa (2015/III)		Aurreko urteko hiruh. bera (2014/IV)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
HERIOTZAK	5.038	100,0	4.663	100,0	5.018	100,0
Gizonak	2.484	49,3	2.344	50,3	2.516	50,1
Emakumeak	2.554	50,7	2.319	49,7	2.502	49,9
HERIOTZA-KAUSA						
GUZTIRA	5.038	100	4.663	100	5.018	100
Tumoreak	1.552	30,8	1.531	32,8	1.595	31,8
Zirkulazio-aparatua	1.370	27,2	1.165	25,0	1.312	26,1
Arnas aparatua	470	9,3	330	7,1	439	8,7
Nerbio sistema	135	2,7	167	3,6	178	3,5
Txegoste-sistema	240	4,8	220	4,7	235	4,7
Gainerako kausak	1.271	25,2	1.250	26,8	1.259	25,1
GIZONAK	2.484	100	2.344	100	2.516	100
Tumoreak	918	37,0	925	39,5	974	38,7
Zirkulazio-aparatua	636	25,6	531	22,7	601	23,9
Arnas aparatua	241	9,7	180	7,7	234	9,3
Nerbio sistema	85	3,4	123	5,2	111	4,4
Txegoste-sistema	118	4,8	103	4,4	118	4,7
Gainerako kausak	486	19,6	482	20,6	478	19,0
EMAKUMEAK	2.554	100	2.319	100	2.502	100
Tumoreak	634	24,8	606	26,1	621	24,8
Zirkulazio-aparatua	734	28,7	634	27,3	711	28,4
Arnas aparatua	229	9,0	150	6,5	205	8,2
Nerbio sistema	50	2,0	44	1,9	67	2,7
Txegoste-sistema	122	4,8	117	5,0	117	4,7
Gainerako kausak	785	30,7	768	33,1	781	31,2

Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Bizilekua Euskal AEn dutenen heriotzak. Hileko datuak



Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62
Euskal AEko heriotzen estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago
Euskal AEko heriotzen estatistikari buruzko datu-bankua